

✿ Hitz eta Pitz ✿

Agustín Fernández Paz



Galiziako idazleen artean badiara beren mugetatik kanpo oso ezagunak direnak, horietako bat dugu Agustín Fernández Paz. Umorea, kritika, abentura eta beldurrezko testu ugariren egilea izanik, aproposa iruditu zaigu berarekin hitz egitea Haur eta Gazte Literaturako Beldurrezko Literaturaz... baina ikusi ahal izango duzun bezala hortik at beste mila kontu ere aipatu ditugure artean hainbat eta hainbat lan dituen idazle honek.

Agustín, zure lanetan estilo eta gai ezberdinak landu dituzu, zer du berezia beldurrezko literaturaren generoak? Zergatik jotzen duzu, batzuetan, bide horretatik?

Egia da nire liburuetakoz batzuk, aldezturik asmoari erantzun gabe, beldurrezko (edo misteriozko, ez dena hain murriztailea) literatura bezala ezagutzen dugun horretan sar daitezkeela. Uste dut berezia duena zera dela: testuinguru errealistan ustekabeen elementu fantastikoak agertzea, pertsona guztiok ditugun beldurrekin bat egiten duten elementuak. Uste dut genero honekin ondo pasatzeko baldintza benetan ez sinestea dela, fikzioa irakurtzeak berekin dakartzan arauak onartzen dituzun heinean baino ez sinestea, irakurle orok ezartzen duen sinesgarritasun itun hori onartzen duzun heinean, alegia.

Suposatzen dut batzuetan genero hau aukeratzeak eragile ezberdinak izango dituela. Horietako bat nire haurtzaroko ahozko tradizioa izan daiteke. Berrogeita hamarreko Galizia bezalako herri batean, bizien eta hildakoen mundua lotzen duten istorioak sineskeria kolektiboen zati ziren. Beste eragile bat irakurketa izan daiteke, goiz konturatu bainintzen oso gustuko nituela beldurrezko istorioak. Poeren kontakizunak zituen liburu bat zegoen nire etxean, eta baita *Arthur Gor-*



don Pymen menturak haren nobela ere: horiek dira benetako beldurra eragin zidaten gogoan ditudan lehen irakurketak. Eta zinemak, jakina. Ni nerabea nintzen Hithcocken *Psikosia* lehen aldiz eman zutenean, adibidez, edo Hammer produkzio-etxearen Dracularen pelikulak.

Egile bezala, istorio baten barruan misteriozko elementuak egoteak mundu errealari buruz askatasun gehiagoz hitz egiteko balio duela uste dut. Mugak zabalduko balira bezala da. Oso argi ikusten da hori *Noite de voraces sombras* (*Itzal suntsikorren gaua*) nire liburuan, non misterioaren presentziak beste modu batera heltzea oso zaila litzatekeen errealitate batez hitz egiten uzten didan. Oso eroso sentitzen naiz misterio eta beldurrezko narrazioen ezaugarri den errealitate eta fantasiaren arteko nahasketa horrekin.

Zinemari buruz hitz egin duzu; zein neurrirainoko eragina du zinemak beldurrezko literaturan eta zehazki zure ekoizpenean?

Zinemak asko eragin du nigan, betidanik, eta baita orain ere. «*El cine de los sábados*» («Larunbatetako zinema») poeman Martínez Sarrión-ek hain ondo adierazi duen zinemak liluratuta hazi zen belaunaldikoa naizela uste dut. Eta misterio

eta beldurrezko literaturak pantailan du bere itzulpen ideala, irudi bidez narratzeak aukera bikainak eskaintzen ditu, elipsirako –ikusten ez duguna iradokitzeke– duen ahalmenagatik batez ere (ez da kasualitatea mitoei, Dracularengandik Frankensteinenganaino, film gogoangarriak eman izana). Shyamalan-en *Seigarren Zentzumena* edo Amenabarren *Besteak* bezalako filmek generoaren bizitasun iraunkorra erakusten dute.

Literatura klasikoan zehar, gaikako sailkapena egin izan da. Gaur egun, aldiz, ohikoak dira gai ezberdinen nahasketak; beldurra umorearekin edo misterioarekin nahastuta ikus daiteke adibidez. Sortzaile bezala, zein da zuk aukeratzen duzuna?

Niri asko gustatzen zait nahasketa hori, uste dut generoen arauak hautsiak eta birsortuak izan daitezen daudela. Adibide bikain bat Álvaro Cunqueiroren *As crónicas do Sochantre* (*Sochantrearen kronikak*) da: beldurra, umorea, abentura... denetik dago eleberri zoragarri horretan. Nik uste dut testuinguru errealista batean fantasia sartzea oso emankorra dela, bizitzari ikuspuntu literarioki aberatsago batetik heltzen uzten du. Sobera daude adibideak, Kafkaren *Itxuraldaketa* liburutik hasita Albert Sánchez Piñol-en *La pel*

freda (*Larru hotza*) libururaino, interesez irakurri dudan beldurrezko azken eleberria.

Idazten dudanean, atsegin dut anbiguotasunarekin jolas egitea, irakurlea beti gera dadin ahots narratzaileak kontatzen diona erreala den ala ez jakin nahian. Lehenengo pertsona oso egokia da horretarako, horregatik erabiltzen dut halako istorioren bati ekiten diodanero.

Beldurrezko literaturak urte asko eta egile handiak ditu. Zein dira zuk nahiago dituzun autoreak? Sortzen dugun literaturan norainoko eragina dute gure gustuek?

Irakurri ditudan guztietatik, funtsezkoak iruditzen zaizkidan hiru izenekin geratzen naiz: Edgar Allan Poe, M.R. James eta H.P. Lovecraft. Modu batera edo bestera, generora egin ditudan hurbilketetan presente dauden autoreak dira. Lovecraft batez ere, oso aldakorra den arren, narrazio ahaztezinak dituena: *Dunwich-en izua* edo *Charles Dexter Ward-en kasua* adibide onak izan daitezke. Eta mamuen ipuinetan, hain gustuko ditudanetan, M.R. James hobezina dela uste dut.


Ingeleseztatik idatzi duten egileak aipatu dituzu, baina badira autore galiziarrek, Xabier Docampo edo zu zeu esaterako, zeintzuren beldurrezko liburuak

jendearen eta kritikaren oso harrera ona izan duten. Zein da Galizian beldurrezko literaturaren egoera?

Gaur egun ez da genero hau gehiegi lantzen, eta hori indar handia duela beldurrezko ipuinen herri tradizioak. Baditugu dagoeneko klasiko diren egile batzuk ezinbestekoak direnak, Ánxel Fole adibidez, eta egungo egile batzuk, batzuetan, generoaren arauak erabiltzen dituztenak beren liburuetan –*Trece badaladas* (*Hamahiru kanpai-hotz*), Suso de Toroena, adibide bat izan liteke–. Azken urteotan, beharbada, ni izan naiz beldurraren generoari sarrien heldu diona.

Azkenaldian, Agustín, izan dira «Hotzikarak» bezalako bildumak salmenta arrakasta handiak izan dituztenak, hizkuntza gutxituak deiturikoetan ere argitaratu direnak. Zeri zor zaio, zure ustez, liburu hauen arrakasta?

Irakurri dut serie horretako liburuaren bat eta, egia esan, irakurle bezala ez zaizkit interesatzen. Generoan berezko diren pertsonaia eta konbentzioak erabiltzen dituzte baina, nire ustez, hutsaldu eta ezereztuak. Askok saldu eta irakurriko dira, baina ez dut uste irakurlearen memorian geratuko diren liburuak izango direnik. Horien arrakasta, nire aburuz, narratzeko oso modu sinplea –paragrafo laburrak, elkarriketa asko, puntu eta bereiz ugari– eta trama errazak –bel-



durrezko istorioetako pertsonaiek eragiten duten erakargarritasunean oinarritzen direnak— erabiltzean egon daiteke.

Zure ekoizpena itzuliz, zure beldurrezko eleberrietan azkenetako bat 2004an argitaratu da, *Aire beltza*. Bertan gazte bat duzu hizpide, Laura Novo, psikiatrikoan sartuta dagoena... Zure ustez, non dago benetako beldurra, ikusten dugun horretan ala imajinatzen dugunean? Zein neurritaraino kontrolatzen gaitu beldurrak, egin nahi ez ditugun gauzak egitera behartu gaitzake?

Aire beltza, niretzako, nire eleberririk onena da (irakurleek *Neguko gutunak* nahiago duten arren), eta iruditzen zait beldurrarenak baino askoz alderdi gehiago dituela. Gizakiok izan ditzakegun beldur eta obsesioek parte hartzen duteneko istorio bat narratzea interesatzen zitzaidan eleberri horretan. Ez da liburua kasualitatez hasten Jung-en zita batekin, izan ere mitoei eta inkontziente kolektiboari buruzko Jung-en teoriak presentzia handia dute liburuan. Beldurrak Laura Novoren barruan daude, berak irudikapen sinboliko batean gorpuzten baditu ere.

Nork ez du beldurrik? Beldur pertsonala eta beldur kolektiboa. Gainera, bizi gareneko gizartean, «arriskutsu» bezala kalifikatu den honetan, beldurren abanikoa tradizionala baino askoz ere zabalagoa da (pentsa dezagun klima aldaketan edo manipulazio genetikoaren ahalbideetan). Baina, gizarte idilikoan ere, nire ustez beldurrak geure baitan egoten jarraituko luke, sakonki gizatiarra baita.

Zure azkenetako bat den *Tres pasos polo misterio* lanean berriro eskaintzen dituzu beldurra eta misterioa elkarrekin agertzen direneko narrazio batzuk. Zer harreman dute zuretzat ezagutzen ez dugunak eta izuak, misteriotsua denak eta beldurrak?

Liburu hau adibide ona da generoan interesa dakizkidan alderdi ezberdinena. Bertan bada ipuin bat —«Harrizko sugea»— Lovecraftek ezarri-

tako ereduak jarraituz idatzitakoa: beldur hutsa, mundu errealean lekurik ez duten elementu adierazteazinekin arituz idatzia. Baina bada beste bat —«Faroaren itzalak»—, onena nire iritziz, non misterioaren presentzia darabildan lehenaldi beldurgarri bati buruz —gerraoste espainiarra— hitz egiteko. Azkena —«Mamu-istorio bat»— beldurrezko ipuinen tradizio gailegoari (edo ingelesari, M.R. Jamesen modura) lotzen zaion kontakizuna izan daiteke.

Haur literaturatik helduenara doan irudizko eskailera batean, non kokatuko zenuke beldurrezko literatura?

Uste dut gaiak ez duela irakurlearen adina baldintzatzen, izan ere adina testuaren konplexutasunak baldintzatzen baitu eta ez kontatzen den istorioak. Beste edozein generotan bezala, adin guztientzako beldurrezko liburuak daude, nahiz eta agian gazte eta helduentzako narratibaren ematen den betetasun gehiagoz.

Azkenik, nola animatuko zenuke beldurrezko libururik irakurri ez duen gazte bat horietara hurbil dadin?

Aurreiritziak baldin baditu (oso ohikoa dena genero literaturaz hitz egiten denean), alde batera utz ditzala esango nioke: beldurrezko kontakizunen elementuak hartzen dituzten baina beldurrezko kontakizun ez diren ekoizkin topiko eta errepikakorrei erantzuten diete aurreiritzi horiek (eta hau are agerikoagoa da zineman, non ugari diren film txarrak). Eta aholkatuko nizkioke ziu-rrenik positiboki harrituko luketen lanak. Bram Stoker-en *Dracula* modu ona izan daiteke hasteko. Baita Edgar Allan Poeren kontakizunen hautaketa bat ere, edo H.P. Lovecraften eleberriren bat. Edo, zergatik ez?, *Aire beltza* laneako misterio eta larritasunezko giroan sartuz proba dezala.